

OIHENARTEN GRAFIA

Nerea ARRIZABALAGA
Patxi ALTUNA

Txosten honen aztergaia, tituluak dioen bezala, Oihenarten grafia bada ere, lehenik laburki Etxeparerena eta Leizarragarena nolakoak diren adieraziko dugu. Hura baino lehenagoko beste bi idazle hauen grafia ezaguturik errazkiago ikusiko ditugu Oihenartenak dituen berezitasunak.

1. Kontua hau da: euskal hotsen grafia-sistema arautu gabe zegoen garaian, idazle bakoitzak asmatu behar zuen zein grafemaz balia euskal hotsak iruditartzeko. Xixtukariak ematen zieten nekerik handiena, zerena, jakina den bezala, ez latinak eta ez frantsesak edo espainolak ez baitzituzten halako hotsik gehienak eta ez baitzen haiek honela edo hala idazteko tradizioirik. Bestalde idazleek hautatu grafemetan kontsonante afrikariak eta frikariak, esate baterako, garbiro bereizten ez baziren, horrek gero nahitaez dudak sortu behar guri behin baino gehiagotan, hitz bat irakurtzeko orduan. Etxepareren «bocen», esate baterako, zer da? nola irakurri behar da, «çucen» bezala? Nola irakurri zuen berak: «bozen» ala «botzen»? Duda handiagotzen da, hori *r, l, n* kontsonanteen ondoan gertatzen denean, gero ikusiko den bezala.

Horietan dauntza diferentziarik handienak idazleen artean eta horiek aztertuko ditugu bereziki, jakiteko nolako hotsa, frikaria ala afrikaria, izkutatzen den Oihenarten grafemen pean, edo bestela esan, nola ahoskatzen zituen Oihenartek xixtukariak inguramendu jakin batzuetan. Honetarako oso baliooa deritzagu Mitxelenak Oihenarti buruz Gipuzkoako Diputazioan egin eta gero BAPen 1953an argitaratu zuen hitzaldiari, han gaurko grafiara aldaturik eman baitzituen tartean-tartean aipatzen zituen Oihenarten bertsoak.

2. Etxeparegandik hasteko, Lafonek honen grafiaz irakatsi zuena oso ezaguna da: Hitzaurrean eta azken bi kantetan —XIV. eta XV.ean—, gainerako hamairuetan ez bezala, bokal artean hots afrikariak eta frikariak bereizteko grafema ezberdinak erabili zituela, honako zerrenda hauek erakusten duten bezala (bizkar albeolareak bakarrik aipatuko ditugu, ugarienak baitira):

I-XIII. kantan

| | |
|-------------------------|------------|
| (Afrik.) | (Frikari) |
| cerbiçatu (=zerbitzatu) | eliçara |
| bayçaygu (=baitzaigu) | veçanbat |
| eçitian (=etzitian) | ezticit |
| iraçar (=iratzar) | beguireçan |
| ayçinian (=aitzinian) | auciric |
| eçagucia (=ezagutzia) | malicia |
| baçu (=batzu) | duçu |
| deriçut (=deritzut) | meçu |

Hitzaurrea eta XIV-XV.kantan

| | |
|-------------|--------------|
| (Afrik.) | (Frikari) |
| certitzari | içan |
| scribatzeco | beçala |
| guelditzen | plaçara |
| darauritzut | imprimiçalia |
| batzu | baytuçu |
| baçautzu | dizun |
| aitzinerat | Garacico |
| estimatze | gucira |
| burlatzen | eceyn |
| ezpaitzen | |

Beraz I-XIII kantetan euskara jakin gabe eta hitzak ezagutu gabe ez dago jakiteko modurik *c* eta *ç* noiz diren frikariak eta noiz afrikariak. Horregatik *valiçate*, esate baterako, bertso batean (III,2) *balitzate* da, nor-nork, alegia — «uci valiçate»— eta beste batean (III,5) *lizate* da —«ederrago liçate»—, «baliz» baitzen orduko forma eta ez «balitz». Aldiz garbi ikusten da Hitzaurrean eta bi azken kantetan aldatu zuela bokal arteko xixtukarien, afrikari zirenekoen, grafia eta horregatik erraz da batzuk eta besteak bereizten. Ez zuen ordea aldatu *l,r,n*-ren ondoko xixtukariena, ondoko bi zerrendetako hitzek erakusten diguten bezala:

I-XIII. kantan

| | |
|------|--|
| -1-: | hilcen, vilcen, galcen belçari |
| -r-: | harcen, aguercera, sarcian carcel, çuhurcia, igorciriz, harçara (=atzera) |
| -n-: | qhencen ençun, cençuz, arhancez, minço, minçatu puncela, venci |

sperança, paciença
penitencia, conciencia

Hitzaurrea eta XIV-XV. kantak

| | | |
|-------------------------|----------|---------------|
| galcen / harceco, berce | | |
| goraynci | sciencia | ignoranciaren |
| inçan | dançara | abançatzeco |
| prince | francesa | |

Honetan gelditzen garela ere, garbi ageri dira bi gauza: bat, ez dagoela batere alderik bi multzoen artean; bi, *l,r,n*-ren ondoan *c* grafema darabilela beti, aditz izenen —*tze*— delarik edo ez delarik, batere heldulekurik eman gabe noiz ahoskatzen zuen frikari noiz afrikari asmatzeko.

3. Alde horretatik Leizarragaren grafia-sistema askoz landuagoa eta zehatzagoa da eta gainera ezin erosoagoa irakurlearentzat, beti baitakigu nolako hotsa edo fonema iruditaratzen duen grafema bakoitzak. Eta hala ez ditu frikari-afrikariak bokal artean bakarrik beti eta sistematikoki bereizten (*eçagun, beçala, içan, naicen*, etab. batetik eta *dedicatzera, ezpaitzuen, orhoitzeac, bihotzetan*, eta etab. bestetik), baita gainerako jarreretan ere. Har ditzagun, esate baterako, Juana de Albret erreginari egin zion bere itzulpenaren eskaintzaz gain, *Heuscalduney* deritzan gutuntxoia eta ondoko bi idazti «Adbertimendua» eta «Somarioa» deritzenak, eta sailka ditzagun hor goian bezala *l,r,n*-ren ondoan bizkar albeolarea duten hitz batzuk:

- l*–: itzultzeco, hurbiltzeco,
biltzarretic, galtzapen
mulço
- r*–: hartzera, sartze, sortzeco
berçalde, berce, bercela, sporçu, cerçaz
çuhurtziáz
- n*–: kencen, bardincen
avança-, minça-, deçadançat, behinçat,
sperançaçaz, ordenançaçaz, dençat
nincela, Belçunçe-
principalqui, incitatu,
reverentia, insufficientiaz
ançora

Ongi ageri dira bi gauza: bat, *r,l*-ren ondoan frikaria dela fonema, salbu aditz izenen —*tze*— eta horretatik sorturiko *biltzar, galtzapen* (ikus *biltzen, galtzen*) eta hauen antzekoak direnean; bi, *n*-ren ondoan aldiz frikaria dela beti, baita aditz izenen —*tze*— denean ere. Gatozen orain, bera baino lehenago-ko beste bi idazle horien grafia-sistemaren argitan Oihenartena ikertzera.

4. Haren neurtitzetako edozein orrialdetan liburua zabaltzean berean ohar- tzen da bat bi idazle horiekiko zenbait diferentzia nabarmenez. Hona bi larrienak:

a. Zenbait hitzetako *s* maiz ezinbestean /s/ (frikari apikoalbeolarea) den bitartean, gure *s* bezalaxe, hala nola *sudurra*, *erasten*, *hasten*, *deus*, *stacuru*, *aspaldi*, *uste*, *eskierki* eta abar, aldiz beste askotan —Etxeparegan eta Leizarragan inoiz ez bezala— grafema hori bera /ʃ/ (frikari bizkaralbeolarea) da, esate baterako *su* (=zu), *estinat*, *desaquet*, *besala*, *gueros*, *basterres*, *nis*, *visi*, *besi*, *esi*, *baisi*, *esac* (gure *ezak*), nahiz eta beste batzuetan fonema hori beste grafema batez ere iruditaratzen duen: *beci*, *baicic*, *bici*, *ezen*, *piztu*, *cer*, *cein*, *cegati*, *ceguion*, eta abar.

b. Aldiz Oihenartentzat *z* grafema, gaurko irakurleok bitxi baderitzagu ere, /ç/ fonema da bai hitzaren erdian, (bokal artean, ordea!), bai kabuan; hau da, xixtukari afrikatu bizkaralbeolarea, zenbait salbuespen gorabehera, noski; hala nola, *serbizu*, *estarizozunari*, *izuri*, *uzi*, *sizadan*, *bihoza*, *bazutan*, *bozen*; *gorpuz*, *hiz*, *gaiz*, *anhiz*, *baiez*, *dukesulakoz*, *sintielacoz* —horko «bozen» hori lehen Etxeparek *bocen* idatzirik eman diguna, nola ahoska ez genekiena —gure *zerbitzu*, *eztaritzotzunari* eta abar dira. Nahi adina exenplu aipa liteke, baina aski dirateke emanak. Salbuespenen bat badela esan dugu. Hona hiru: *leguez*, *penez*, *batez*, hauetan frikaria baita, eta doi-doi aurkituko da besterik.

5. Hitz barnean —baina bokal artean— hala dela esan dugu. Zer gertatzen da, ordea, badaezpadako diren *l,r,n* kontsonanteen ondoan? Bat: ze grafemaz baliatzen da? Bi: ze fonema da grafema hori? Ez ahantz, bizkaralbeolareetara mugatzen dugula lana, hauek sortzen baitute buruko nekerik handiena. Ez ahantz ere Leizarragak kuadro hau erakutsi digula:

saltzen eta *elce*
sartzen eta *herce*
 baina
kencen eta *dençat*.

Alegia, *l,r*-ren ondoan, baldin aditz-izenen *-tze* bada, bai, afrikaria; baldin hala ez bada, frikari soila. Ez, ordea, *n*-ren ondoan, hemen ez baitu ezer bereizten, baizik berdin giten, aditz-izenen *-tze* izan edo ez izan. Eta Oihenartek zer?

6. Bi lehen kontsonante horiek, *l,r*, direla eta, ia beti batera ari dela esan behar. Ikus dezagun lehenik nola agertzen den *l*.

Aditz izenen multzoak ez dirudi batere salbuespenik erakusten duenik liburu osoan; beti *-ze* grafia agertzen da. Hala nola:

| | | |
|----------|----------|------------|
| helzen | hilzea | hurbilzea |
| salzea | estalzen | esteialzen |
| izulzean | ximalzen | apalzen |
| | galzen | |

Ikus orain aditz izen ez direnak:

| | | |
|---------|-----------|--------|
| alseiru | belsuriac | alsoac |
| igelsu | arraulse | |

Salbuespen bakarra, ene ustez, *halza* da; ez, ordea, *sabilz*, hemen afrikari baita dudarik gabe, pluralgilea bere baitan duena eta hitzaren kabuan z batez iruditaratua, lehen esan dugun legez. Bi multzo horietatik batean beti z eta bestean ia beti s erabiltzeak aski garbi azaltzen bide digu lehena afrikari egiten zuela berak, lehen ikusi dugun bokal arteko eta hitz azkeneko lege orokorraren arabera, eta bigarrena aldiz frikari.

7. Jokabidea ez da batere bestelakoa *r*-ren kasuan. Baldin hartzen badugu lehenik aditz izenen saila, honako hau aurkituko dugu:

| | | |
|-----------|---------|-----------|
| harzen | gorzen | gogorzen |
| ikerze | oharzen | sarzera |
| oldarzean | gurzera | aguerzeco |
| sorzearen | iarzen | eiharzen |
| | ehorzia | |

Ehunetik ehunetan z-rekin topo egiten dugu, dudarik gabe afrikatu gisa ahoskatu beharrarekin. Iritzi hau sendortzenago da, aditz izen ez diren beste sail honetako hitzen xixtukaria nola ematen duen ikusirik:

| | | |
|-------------|-----------------------------------|------------------|
| onarsun | edertarsuna | hontarsuna |
| | (eta beste- <i>tarsun</i> guziak) | |
| harsu | sakarsu | harsas (=harzaz) |
| amerstera | sorsainac | orsirale |
| espadacarsu | deracarsque | naracarsuno |
| arsto | orsto | orstatu |
| bors | silharstatu | hersis |

Salbuespenen bat edo beste ez da eskas, halere. Ez dago garbi albuespentzat hartu behar diren ere. Izan ere, *nigarzu* idazten du, baina horren ondoan baita *harsu* eta *sakarsu* ere. *Berze* idazten du behin eta birritan, baina horren ondoan *berse* ere bai beste hainbestetan. *Suhurzia* idazten du, baina Leizarragak ere hitz hori *çuhurtzi* ematen digu. *Horzac* irakurtzen dugu, baina horren lexema soilari *horz* idazkera zor zaionez gero —ikus gorago 4.b.—, ez da harritzeko horren analogia nagusitzea hitz barnean bilakatzean ere. Azkenik *bors* aurkitzen dugu idatzia, nahiz *bortz* ahoskerari— eta ez dugu besterik ezagutzen — *borz* grafia zorko litzaiokeen — ikus berriz 4.b.—.

8. Hirugarren badaezpadako kontsonante *n*-ren ondoko xixtukarien azterketa gelditzen zaigu azkenik. Gogora dezagun berriro Leizarragarentzat beti-beti frikaria dela; adibidez, *kencen* eta *nincela*. Eta Oihenartentzat? Hona lehenbizi aditz izen ez direnak:

| | | | |
|------------------|----------|-----------|-------------|
| Sinsurr' | ensuna | enansuna | ensüerri |
| sensus | ansotan | ainsiti | ezinsusquet |
| nensan | honsalen | seinsas | banins |
| lansa | balansa | oinsolala | esparansas |
| beteguinsarretan | | ukensu | |

Horietan guzietan *s* grafema ageri da *n*-ren ondoan. Badira halere hitz berean bitariko grafia batzuk: *minsa/minza*, *ninsatela/ninzatela*. Hor goiko *nensan* horren ondoan beste *guenzan*, *guenzanzat* ere irakurtzen ditugu. Bestalde azken honen bukaerako *-zat* hori hor bezalaxe ageri da beste hauetan: *sirenzat*, *potarenzat*, baina *s*-rekin beste honetan: *patroinsat*. Adizki *saunzala* honen grafiaren arrazoia hau izan liteke: *etzan* dela bere partizipioa. Eta azkenik usteko ez genukeen *aurkinzetan* ere *z*-rekin idatzia ageri da.

Ezin uka dudamudazko zenbait kasu izan ezik, gehiengo handiaren grafia frikariaren alde dagoela. Gauza bera gertatzen al da aditz izenetan? Ikus dezagun:

| | | |
|---------|----------|-----------|
| esconze | urrunzen | hurrenzen |
| lanzen | arhinzen | aizinzen |

Sei danera eta seiak *z* dutelarik. Zer pentsa? Aukera egin beharrea gara nahitaez: edota grafema horren atzean, aurreko andanakoan *s*-ren atzean ez bezala, afrikatua izkutatua dagoela aitortzen dugu, eta orduan Leizarragaren legea — *n*-ren ondoko xixtukaria beti frikaria delakoa— bertatik hautsia dugu Oihenartengan, edota, hau ez onartzekotan eta Leizarragaren legeari atxikitzekotan, bai *sinsurr*'-en eta bai *esconze*-ren *n*-ren ondoko xixtukaria modu berean — frikari gisa, alegia — ahoskatzen zituela sinesten dugu, nahiz guk ez dakigun arrazoiren bategatik bataren eta bestearen grafia bereizi zuen. Pentsatu zuen agian bi sail horiek grafiaz beraz bereizi egin behar zirela, ahoskera gorabehera.

9. Puntu txiki bati garrantzi gehiegi ematea zilegi ez den arren, beste argudiorik ezean esan behar Mitxelena lehen hipotesiaren aldeko zela. Hona zergatik: Etxepareren Xgarren kantuko lehen bertsoko «hurrancera» hura Oihenartek honela aldatu zuen beretzat, bere grafiaren arabera: «hurranzera». Hau berau gero Mitxelenak ordea hor goian (ikus 1.) aipatu dugun Donostiako Diputazioko hitzaldi eder hartako orripeko ohartxo batean honela: «hurrantzera», Oihenarten *n*-ren ondoko *z* horretan afrikatua irakurririk.

Honenbestez pixka bat argitu uste dugu Oihenarten grafia sistemaren punturik ilunena eta, baldin hala bada, burutu dugu geure buruari ezarri genion xedea.